

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA

Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte langileen plazak betetzeko hautaketa prozesua bi plaza gehiagorekin handitzea.

Diputatuen Kontseiluak honako erabakia hartu zuen 2020ko martxoaren 17an eginiko bilkuran:

2019ko urtarrilaren 8ko erabakiaren bidez (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 9. zk. 2019ko urtarrilaren 14koa), Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte langileen hogeita bost plaza betetzeko hautapen prozesuaren deialdia onetsi zen.

Erabaki horretan aurreikusten zen, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategineko 70.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, deialdiaren plaza kopurua handitzeko aukera, % 10, gehienez. Horretarako, plaza kopurua gehitzeari buruzko berariazko erabakia hartu behar da, eta argitaratu Gipuzkoa Aldizkari Ofizialean nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko iragarki taulako «Enplegu Publikoa» atalean, 10. oinarriak diodenaren arabera; hori guztia gaindituen zerrenda argitaratu baino lehen egin behar da, 1.4 oinarriak xedatutakoari jarraikiz.

Hasierako deialdian jasotako plazak baino bost plaza huts gehiago daudenez orain, eta efizientzia arrazoiak direla-eta, komeni da deitutako plaza kopurua handitzea, gehienez % 10, hau da, bi plaza; hartara, abian den hautaketa prozesuaren bidez hogeita zazpi plaza beteko dira karrerako funtzionarioekin, eta are gehiago murriztuko da gizarte langileen plazetako behin-behinekotasuna.

Hautaketa prozesuari dagokionez, une honetan lehiaketa fasaan dago, eta Epaimahai Kalifikatzaileak ez du onetsi gaituen zerrenda; beraz, deitutako plaza kopurua handitu daiteke.

Horrenbestez, langileen ordezkariarekin adostu ondoren, Gobernantza Departamentuko titularrak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

Lehenengo. Handitzea, bi plaza gehiagorekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 2019ko urtarrilaren 8ko erabakiaren bidez deitutako gizarte langileen plazak betetzeko hautaketa prozesua.

Bigarren. Argitaratzea erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko iragarki taulan, eta, orobat, «Enplegu Publikoa» atalean, 10. oinarrian adierazten denaren arabera.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2020ko martxoaren 27a.—Alfonso Acarreta Rodríguez, Departamentuko idazkari teknikoa. (1702)

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA

Proceso selectivo para el acceso a plazas de trabajador/a social de la Diputación Foral de Gipuzkoa: incremento en dos del número de plazas a proveer en el proceso.

El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 17 de marzo de 2020, adoptó el siguiente acuerdo:

Mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 8 de enero de 2019, publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 9, de 14 de enero de 2019, se aprobó la convocatoria del proceso selectivo para el acceso a veinticinco plazas de trabajador/a social de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En dicho acuerdo, de conformidad con lo establecido en el artículo 70.1 del texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, se contemplaba la posibilidad de aumentar el número de plazas convocadas hasta un máximo del 10 %, debiéndose en tal caso acordarse expresamente y publicarse el incremento de plazas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como en el apartado «Empleo Público» indicado en la base 10, en todo caso con anterioridad a la publicación de la relación de aprobados/as, de acuerdo con lo dispuesto en la base 1.4.

En la actualidad existen cinco plazas vacantes más que las inicialmente convocadas, por lo que razones de eficiencia aconsejan incrementar las plazas convocadas hasta el máximo del 10 %, es decir, en dos plazas, de modo que por medio del proceso selectivo en curso se provean un total de veintisiete plazas con personal funcionario de carrera y se reduzca aún más la temporalidad en las plazas de trabajador/a social.

En cuanto al proceso selectivo se refiere, en este momento el proceso está en la fase concurso, sin que todavía el Tribunal Calificador haya aprobado la relación de aprobados, por lo que cabe incrementar el número de plazas convocadas.

Por todo ello, previo acuerdo con la representación del personal y a propuesta de la titular del Departamento de Gobernanza, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

Primero. Incrementar en dos el número de plazas a proveer en el proceso selectivo para el acceso a plazas de trabajador/a social de la Diputación Foral de Gipuzkoa, convocado por el acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 8 de enero de 2019.

Segundo. Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como en el apartado «Empleo Público» indicado en la base 10.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 27 de marzo de 2020.—El secretario técnico del Departamento, Alfonso Acarreta Rodríguez. (1702)